

KOLONIALISMOAREN ARKEOLOGIA

GIPUZKOAKO DOLAREDUN BASERRIEN

AGERPENA XVI. MENDEAN



Maialen Galdos Jauregi

Historiako Gradua

2014/2015 ikasturtea

Sergio Escribano Ruiz

Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia Saila

LABURPENA

Arkeologiak erakutsi duen moduan, XVI. mendean Gipuzkoako geografia osoan dolaredun baserriak agertzen joango ziren, modu nahiko espontaneo eta aldi berean estandarizatuan, habe eta ardatz prentsa teknologia nagusia izanik. Gaur arte egindako lan arkeologikoa oraindik nahiko txikia denez, hutsune asko daude eta eskaintzen zaigun ikuspegia ez da erabat erreal, baina bai esanguratsua. Ordenantzek (bereziki kostaldeko portudun hiribilduetakoek, baina baita Gipuzkoa osoko ordenantzek ere) erakusten duten moduan, gipuzkoar erakundeek politika ekonomiko anitzak erabiliko zituzten interesatzen zitzairen produktuaren arabera. Gipuzkoan defizita zegoen produktuetan (bereziki zerealetan), ordenantzek erraztasun handiak emango zituzten, herria atzerritik horniturik mantentzeko asmoz. Baina, historiografia tradizionalak babesten duen nekazaritza defizitarioaren aurka, Gipuzkoak sagardo produkzio handia ekoizteko gaitasuna izan zuen, itsasoko merkataritza eta arrantzara bideratuko zena, besteak beste, eta horregatik, sagardoaren produkzio eta salmentari garrantzia handia emango zitzaion. Hau guztia garaiko dokumentu idatzietan ikus daiteke oso modu argian; bai ordenantzetan (bai Gipuzkoakoetan baita Donostiakoetan ere), baita garaiko dokumentuetan ere (pleituetan, ontziek garraiatutako produktuen erregistroetan...).

Sagardo kopuru handiak ekoiztu ahal izateko, portudun hiribilduetako oligarkia (gehienbat merkataria zena) hiribilduen inguruko lurak erosten joango zen, askotan dolaredun baserriak eta sagastiak bertan sortuz. Leku hauetan, kasu askotan, sagarrondo eta mahastien zainketan espezializaturiko langileak egongo ziren, soldataren truke lan egiten zutenak.

Barnealdearen kasuan, pentsa daiteke egoera antzekoa izango zela. Izan ere, suposa daiteke barnealdeko ekoizpenek ere behar kolonialei erantzungo lieketela, bai merkataria eta arrantzaleei, baina baita Erret-armadari, adibidez. Oro har, bai barnealde eta kostaldean, autokontsumoa ere oso garrantzitsua izango zen.

Barnealdearen kasuan ere, pentsa daiteke inbertsioak merkataritza eta arrantzaren bitartez aberastu zirenek egingo zituztela, barnealdeak leku aproposa eskaintzen zuelako bai sagardogintzarako, eta kasu askotan, aberats horien jatorria barnealdea zelako (bai Ahaide Nagusien ondorengo zirelako), baina baita

barnealdeko jendeak kolonialismoak eskainitako aukera anitzetan inbertitu eta aberasteko aukera izan zutelako.

Egoera honek, orain arteko historiografia tradizionalaren ikuspegia kolokan jartzen du; Gipuzkoako nekazaritza defizitarioaren ideiaurrean, sagardogintza espezializaturiko Gipuzkoaz hitz egingo genuke.

Argi dago gure ondarea, kasu honetan dolaredun baserriak, arriskuan daudela, besteak beste urbanismoaren presioagatik, eta oro har, antzinatasunak eta materialen galkortasunak arazo larriak dakartzatelako. Horregatik ezinbestekoa da lan arkeologikoarekin jarraitzea, gure ondarea aztertzen jarraitzea, eta ikerketen emaitzak jendartera hurbiltzea. Lan arkeologiko horrekin jarraitzeko interesgarriak izan daitezke baserriaren inguruan egindako dokumentazio lanen erabilera; oinarri arkeologikoa ez duten arren, baserrien bilaketan laguntza handia eskaintzen baitute.

AURKIBIDEA

1. Sarrera	5. or.
2. Hipotesia	6. or.
3. Metodologia	10. or.
4. Testuingurua.....	11. or.
5. Dolaredun baserrien inguruko ikerketa arkeologikoaren egoera	17. or.
6. Errealitate arkeologikoaren azalpena.....	24. or.
7. Ondorioak	32. or.
8. Eranskinak.....	35. or.
9. Bibliografia	55. or.
10. Dokumentu historikoak.....	60. or.

KOLONIALISMOAREN ARKEOLOGIA: GIPUZKOAKO

DOLAREDUN BASERRIEN AGERPENA XVI. MENDEAN

1. SARRERA

Euskal historiaz, euskal ondareaz eta euskaldunon ohitura eta tradizioez hitz egiten dugunean, oso maiz jotzen dugu topikoetara. Euskal Herri berde eta baserritarra da gure lurraldearekin identifikatzen duguna, irudi arras bukolikoa, euskal egloga idazten ariko bagina bezala.

Egun baina, esku artean dugun Euskal Herria ez dator bat irudi horrekin; gurea ez da herri nekazaria bere osotasunean; are gehiago, esan daiteke, salbuespenak egonik ere, herri oso industrialak dela, geroz eta tertziarioagoa, eta nekazaritzaren zeresana geroz eta txikiagoa dela.

Euskal Herria eraldatuz joan da denborarekin, gauza guztiak bezala. Gizartea aldatuz doa eta berekin, herria eta bere ondarea. Euskaldunek beste herrien eraginak jasan dituzte, eta euskaldunek ere beste herriengan eragina izan dute; neurri handi edo txikiagoan, baina argi dago *Tubalen* ustezko ondorengo diren horiek Munduaren historian parte hartu dutela, gainontzeko herriek bezalaxe.

Euskal Herriak munduko koiuntura historiko, ekonomiko, politiko eta kulturalenpean egin du aurrera, eta hortaz, munduko prozesu handietan parte hartu duela ukazina da. Euskal jarduera aktibo horren lekukoak oso anitzak dira, jakina. Baina horietariko asko gure egunerokotasunean oso present daudenez, maiz ez gara konturatzen hortxe daudela. Arkitektura horren adibide garbia dugu.

Gure jatorrizko arkitekturaz dihardugunean, garrantzitsua da adieraztea, antzina-antzinako eraikuntza-usadioa dela funtsean, baina garaien inguruabarren arabera, bizia eta aldakorra aldi berean. Eta gure jatorrizko

*arkitekturaz hitz egiten dugunean, funtsezkoa da herriak eraikia eta herriarentzat eraikia izan dela nabarmentzea, bere kultur nortasun berezia eratuz.*¹

Gure ondarea bilakatuz doan neurrian, baserria, euskal paisaiaren elementu esanguratsuenetarikoa dena, gehien sufritzen ari den elementu materialetako bat izan daiteke. Gure ondorengo belaunaldiek gure arbaso ez hain urrunen bizitza eta lekukotasunak nekez ezagutzeko aukerak izango dituzte, hain zuzen ere errealitate hori amaitzen ari delako egunetik egunera.

Horregatik, momentu larri baina aldi berean garrantzitsu baten aurrean gaudela ikusi behar dugu; gure ondarea, euskalduntasunarekin identifikatzen duguna, galtzen (edo eraldatzen gutxienez) ari da, eta orain arte izandakoa gordetzeko (edo behintzat ez galtzeko) une aiposean gaude. Gelditzen zaizkigun iraganeko testigantzak orain ulertzen ez baditugu, zaila izango da etorkizunean beraien berri jakitea. Horregatik, historialari, arkeologo eta oro har, iragana aztertzen duen edonork badu zereginik.

Ondarearen hauskortasun eta *ahantzgarritasun* kritiko horren aurrean, euskal baserriaren jatorriaren inguruan ikertzea da Gradu Amaierako Lan honen helburua. Euskal Herriak mundu mailako prozesuetan parte hartu du, bai eraginak jasotzen, baita eragiten, eta jarraian azalduko dudanez, baserriaren sorrera eragite hauei loturik ote dagoen frogatu nahi izan dut.

2. HIPOTESIA

Lanaren izenburuak dioen bezalaxe, lan honen helburua XVI. mendean zehar, Gipuzkoan eman zen dolaredun baserriaren agerpen eta finkapena aztertzea izan da, ebidentzia arkeologikoetan oinarrituz eta iturri idatziekin alderatuz. Lanaren helburua dolareen hedapenak eta testuinguru kolonialak zer nolako lotura izan zuten aztertzea

¹ Iñaki ARZOZ eta Andoni ALONSO, *Baserri eraitsia. Jatorrizkotasunaren adierazpena*, Donostia, Gaiak, 1998, 28. orrialdea.

da, XVI. mende hasierako koiunturari loturik agertu zirela dioen hipotesia² argudiatuz.

Planteaturiko hipotesia, esan bezala, *Kolonialismoaren Arkeologia* arloaren barruan sartu beharko litzateke, funtsean kolonialismoak metropolian eragindako aldaketetako bat aztertu nahi izan baitut. Izan ere, Kolonialismoaren eragin zuzenena kolonietan bertan gertatzen dela ukaezina den arren, askotan ahaztu egiten zaigu metropolian bertan ere aldaketa ugari gertatzen direla. Aldaketa horiek jakina, historiografiak aztertu izan ditu. Arazoa da, askotan ikerlariek ez diotela behar besteko harretarik eskaintzen kolonialismoak jendearen bizitzetan, tokian tokiko egunerokotasunean, eta oro har, leku bakoitzeko gizarte antolaketan edota ekonomian izandako eragina. Hortaz, kolonialismoaren emaitza makroekonomikoak ezagutzen ditugun arren, egoera mikroekonomikoak dextente bazterturik gelditu izan dira maiz.

Horregatik, lan honekin Kolonialismoak XVI. mendeko Gipuzkoa hartan eragin zuen (edo behintzat asko bultzatu zuen) eraldaketetako bat aztertu nahi izan dut, printzipioz landa munduan eragina izango zuena, baina hirigune eta beraziki portudun herri eta hirietan esangura asko izango zuena.

Hasierako momentuan planteaturiko hipotesia eta lana amaitu ostekoa funtsean berdinak diren arren, azpimarratu beharrekoa da planteamenduan badela ñabardura txiki bat, lan honek azalpenik aurkitzeko aukerarik eman ez duen arren, ikerketaren sakontzearekin ziurrenik emaitza positiboak eskainiko dituena: eskorbutoa.

Izan ere, dolaredun baserrien agerpena ulertzerako orduan, eskorbutoaren existentziaz jabetzea ezinbestekoa da. Horixe izan zen hasierako momentuan egindako lehen hausnarketa: Amerikarako bidaiak geroz eta gehiago ziren momentuan, marinelen eskorbutoa ekiditeko asmoz sagardoaren kontsumoa handituko zen (eskorbutoa ekiditen laguntzen duena), eta horregatik dolaredun baserriak agertuko ziren, sagardoa modu industrialean produzitu eta eskaera guztiari erantzun ahal izateko. Hain zuzen ere, dolaredun baserria sagardo kopuru erraldoiak produzitzeko aukera emango lukeen makina erraldoi bezala ulertu behar dugu.

² Sergio ESCRIBANO-RUIZ, "Archaeology of a Country House in Laudio, Basque Country", in *SHA Newsletter*, Vol 47, nº 4, 2014, 12. orrialdea.

Eskorbutoa gaixotasun defiziente bezala klasifikaturik dago eta C bitamina nahikoa ez kontsumitzeagatik azaltzen da.³ Gizakia ez da C bitamina produzitzeko gai, eta horrenbestez, elikaduraren bitartez eskuratu behar du. C bitamina elikagai freskoetan dagoenez (zitrikoak, meloia, piperra, barazkiak, guaiaba, marrubiak, anana, kiwi, patata gordina, perrexila...⁴), eta bidaia luzeetan elikagai freskoen kontserbazioa oso zaila zenez, osasuntsu mantentzeko⁵ beharrezkoa den C bitamina kontsumoa ezinezkoa zen; hau zela eta, gaixotasuna ekiditeko modua ezagutu aurretik, %50eko heriotza tasaraino heltzen zen. Ontziak hornitzerako garaian, elikagaien kalitatea baino, garrantzitsuena elikagaien iraupena zenez, bidai luzeenentzako ongien kontserbatzen ziren jakiak biltzen ziren, C bitaminan oso pobreak zirenak. Eskorbutoak, gainera, marinela ahultzen zituen, beste gaixotasunen arriskua handituz (disenteria, sukar horia, malaria...).

Hasieran planteatutako hipotesi honetan, ordea, zalantzatan jarri daitekeen aspektu bat dago. Izan ere, XVI. mendean eskorbutoaren inguruan euskal marinelek zuten ezagutza ez dugu ezagutzen, dokumentuetan ez delako aurkitu, orain arte behintzat, sagardoak eskorbutoa ekiditen edo sendatzen lagun dezakeela ezagutzen zela adierazten duen aipamenik. Hain zuzen ere, XVIII. mendera arte itxaron beharko zen hori modu enpiriko batean frogatua izateko, James Lind (1716-1794) fisikari eskoziarraren ikerketen emaitzak ezagutu arte. 1747an, frogatu zen modu zientifiko eta ofizial batean eskorbutoaren aurkako erremedio onena zitrikoen kontsumoa zela.

Next to the oranges, I thought the cyder had the best effects. (...)

However, those who had taken it, were in a fairer way of recovery than the

³ Steven R. PENDERY eta Hannah E.C.KOON, "Scurvy's Impact in European Colonization in Northeastern North America" in Peter E. POPE eta Shannon LEWIS-SIMPSON (edit.), *Exploring Atlantic Transitions. Archaeologies of Transience and Permanence in New Found Lands*, Suffolk, The Boydell Press, 2013, 57. orrialdea.

⁴ Pedro FARRERAS eta Ciril ROZMAN, *Medicina interna*, Bartzelona, Elsevier España, 2012, 1816. orrialdea.

⁵ Eskorbutoaren sintomak oso anitzak dira: sudurreko odol-jarioak, hortzoiaren kalteak, ubeldurak, orbain gorriak, zurbiltasuna, begi hondoratuak, logura, zaurien supurazioa, hortzen galera, odol gario anitzak, ebakiondoen irekitzeak, hezurren haustea, barne hemorragiak, heriotza... S.R. PENDERY eta H.E.C.KOON, *Opus cit.*, 57. orrialdea.

*others at the end of the fortnight, which was the length of time all there different courses were continued, except the oranges.*⁶

Beraz, sagardoa eskorbutoaren aurkako tratamendu onena ez zen arren, esan daiteke lagungarria izan zitekeela C bitamina gehiago kontsumitzeko aukerarik ez zegoenean.

Hortaz, ikusita Linden ikerketa XVIII. mendearen erdialdetik aurrera egingo zela, ondoriozta daiteke, euskal marinelek sagardoa kontsumituko zutela itsasoko bidaiak luzeetan, ez bere ezaugarri *terapeutikoak* ezagutzen zituztelako, baizik eta Euskal Herri hezean tradizio handia zegoelako berez berau produzitu eta kontsumitzeko⁷ eta ez zelako txartzen bidaiak luzeetan, urari gertatzen zitzaion ez bezala. Dena dela, ezinezkoa da ezer baieztatzea, azken batean dokumentu idatzietan aipamenik ez egoteak berez ez duelako ezer konfirmatzen. Horregatik, interesgarria izan daiteke marinelek zuten ezagutza posible hori frogatzeko ontzietako edari kontsumoen inguruko azterketa sakonago bat egitea, batik bat Sevilla bezalako gune kolonial garrantzitsuetako ontziek garraiatutako edari eta eskorbuto gaixoen arteko erlazioak aztertuz, Ingalaterra bezalako atzerriko beste potentziek kontsumitutako edarien inguruan aztertuz...

Horregatik, sagardoaren kontsumoaren onurez kasualitatez edo modu kontzientean profitatu baziren ere, argi dago, bat-bateko kontsumo handi hark Gipuzkoako lurren ustiaketaren intentsifikazio esanguratsua ekarriko zuela, bai barnealdean, baita kostaldeko portudun guneen inguruetan ere.

Beraz, esan daiteke nire lanaren funtsa honakoa dela: XVI. mendean zehar, Amerikaren kolonizazioak eta Kontinente Berriak eskainitako aukera ekonomiko berriek bultzatuta, euskal itsasgizonen bidaiak asko ugartuko zirenez, Gipuzkoan dolaredun baserriak modu oso esanguratsu batean agertuko ziren, ontzien sagardo

⁶ James LIND, *A treatise of the Scurvy: in Three Parts, Containing an Inquiry Into the Nature, Causes, and Cure, of that Disease*, London, S. Crowder [and six other], 1772, 150-152. orrialdea.

⁷ Aipamen zein irudi ezberdinek adierazten duten moduan. Donemiliaga Kukulan, esaterako, X. mendeko irudikapen batean bi pertsona ageri dira lanean dolare batean. Marian GEREÑU, *XVI., XVII. eta XVIII. mendeetako arkeologia Gipuzkoan. Arqueología de los siglos XVI, XVII y XVIII en Gipuzkoa*, Donostia-San Sebastián, Gipuzkoako Foru Aldundia, 2011, 239. orrialdea.

eskaera handiak asetzeko asmoz. Sagardoaren eskariaren handitzeak Gipuzkoan berez tradizio luzea zuen edariaren produkzio espezializatu bat ekarri zuen.

3. METODOLOGIA

Lanaren funtsa errealitate arkeologiko bati azalpena bilatzea izango da; azken finean, beste arkeologoek egindako lan arkeologikoa da lan honen oinarria.

Esan daiteke, lanak bi atal nagusi dituela. Alde batetik, orain arte Gipuzkoan egindako lan arkeologiko guztiaren laburpen analitikoa legoke; eta bestetik, errealitate arkeologiko konkretu honi azalpen bat ematen saiatzea, horretarako orain arte egindako lan bibliografikoan oinarrituaz⁸, baita garaiko dokumentuetan ere.⁹ Landutako dokumentazioaren baitan, Gipuzkoako ordenantzen hiru bilduma ezberdin dira gehien erabilienak¹⁰, nahiz eta bestelako dokumentuak ere erabili diren, batik bat argitaratu gabeko dokumentu bat.¹¹

Esan bezala, ikerlanaren mugei dagokionez, Gipuzkoa da aukeraturiko esparrua; hasiera batean Bizkaiko kasua aztertzea ere pentsatu nuen, baina ikusi nuen lan konkretuago bat egitea komenigarriagoa zela, besteak beste denbora eta espazio faltagatik. Gainera, lanari ekiterako orduan, Marian Gereñuk egindako Gipuzkoako Aro Modernoko lan arkeologikoen laburpenean oinarritu naizenez, proposagoa iruditu zait probintzia bakarra aztertzea.

⁸ Jorraturiko gaiari buruzko lan zehatzik ez dagoenez, ikergaiarekin zeharka harremana izan dezaketen hainbat lan irakurri behar izan ditut, kasu batzuetan aipamenean bat aurkituz.

⁹ Dokumentazioari dagokionez, Álvaro Aragón Ruano, Mikel Leoz Aizpuru eta Jose Ángel Lema Pueyori eskerrak eman behar dizkiet, eurek lagundu baitidate dokumentu batzuen bilaketa eta irakurketan.

¹⁰ Erabilitako hiru errekopilazioak 1583ko, 1674koa eta 1696koak izan dira. Hiru momentu ezberdinetako kronologiadun ordenantzekin lan egiten, araudietan bertan izandako aldaketa ikus daitezke. Sebastian de INSAUSTI (edit.), *Recopilación de leyes y ordenanzas de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa por el Lic. Cristóbal López de Zandategui y Luis Cruzat (1583)*, Donostia, Publicaciones de la Excma. Diputación Foral de Guipúzcoa, 1983; *Fuero de Guipúzcoa. Edición facsímil del Fuero de Guipúzcoa editado en el año 1674*, Bilbo, Editorial la Gran Enciclopedia Vasca, 1981; *Nuevo Recopilación de los fueros: Privilegios, buenos usos y costumbres, leyes y órdenes de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa*, Juntas Generales de Guipúzcoa, Lex Nova, Valladolid, 1976.

¹¹ Archivo General de Simancas, Registro General del Sello, III-1492, 352.

Kronologiari dagokionez, XVI. mendea landu dut, printzipioz, nahiz eta dolaredun baserrien agerpena ulertzeko ezinbestekoa izan den XIV., XV. eta XVII. mendeetaraino jotzea, azken finean gauzak ez direlako bat batean gertatzen, prozesu luzeen emaitzak direlako.

Ahozko iturri bat ere erabili da lana osatzeko; izan ere, XX. mendeko sagardogintza ohituren berri ematen duen arren Mari Carmen Mendizabal Landa oiartzuarrak¹², interesgarria izan daiteke Erdi Aro amaiera eta Aro Modernoko lan eta jabetza sistemak ulertzeko.

4. TESTUINGURUA

Dolaredun baserrien agerpena ulertzen hasi aurretik, prozesu guzti hau gertatu zen garaia ulertu behar dugu, eta horretarako ezinbestekoa da XIV. eta XV. mendeetan kokatzea, hain zuzen ere, orduantxe hasiko baitzen Gipuzkoa modu esanguratsuan eraldatzen.

Kontuan izan behar dugu lehenik, Gipuzkoaren bilakaera historikoa erabat baldintzatuko zuen elementua, bere klima izango dela. Argi dago klimak (baita lurraldearen orografiak neurri handian) Gipuzkoako ekosistema definitzen lagunduko zuela, eta beraz, bertako jarduera ekonomikoetan erabateko baldintzatzailea izango zela.¹³

Euskal Herri osoaren aniztasun klimatiko eta orografikoak (guztira hiru zonalde bereiziz)¹⁴ ez zion Gipuzkoari mesede handiegirik egingo, bertako klima ez zelako inondik inora egokiena nekazaritza zerealistiko batentzat.¹⁵ Kontuan izan

¹² 2015eko martxoaren 21ean izandako elkarrizketa.

¹³ Xabier ALBERDI, *Conflictos de intereses en la economía marítima guipuzcoana. Siglos XVI-XVIII*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitapen Zerbitzua, 2012, 53. orrialdea.

¹⁴ Iparralde hezea, erdialde kontinental eta hegoalde mediterranearra. Luis María BILBAO eta Emiliano FERNÁNDEZ DE PINEDO, *La producción agrícola en el País Vasco peninsular. 1537-1850. Tendencia general y contrastes comarcales. Una aproximación*, Donostia, Editorial Eusko Ikaskuntza S.A., 1984, 98-100. orrialdeak.

¹⁵ 1300-1860. urteen artean izandako Hotzaldi Txikiak ere ez zizkion nekazaritako gauzak gehiegi erraztu; bat-bateko hozte eta berotzeekin, uzta txarrak oso ohikoak izan ziren. Álvaro ARAGÓN, "Transformaciones agropecuarias en Guipúzcoa durante los siglos XVI y XVII" in María José Pérez

behar dugu Berant Erdi Aroko gizarte nekazariak oso tradizionalak zirela, uztekiko erabateko dependienteak eta teknologia nahiko urri eta eraginkortasun baxudunak (XX. mendera arte luzatuko zen egoera hau), eta beraz, autohornikuntza zerealistikoa lortzea ezinezkoa zen. Maiztergoaren orokortasunak (nahiz eta kasu askotan kontratu enfiteusikoen¹⁶ bitartez izan) ez zuen bereziki asko laguntzen lurren hobekuntza bultzatzerako orduan. Jabeak zirenen kasuan, bestalde, lurrak oso eremu txikikoak izaten ziren, eta, azken batean, bertatik lor zitekeen ekoizpena inoiz ez zen nahikoa.¹⁷

Egoera honen aurrean, Gipuzkoan zereal defizita arazo larria izango zela nabarmena da; elikaduraren oinarria, ordea, neurri handi batean jatorri mediterraneoko produktuak zirenez, euskal ekonomia egoera defizitario horretara egokitu behar izango zen, gizartearen beharrak asetzeko asmoz.

Testuinguru honetan ulertu behar dugu Berant Erdi Aro amaierako Gipuzkoako ekonomiaren dibertsifikazioa. Izan ere, nekazaritzan baino, bigarren sektoreko jardueretara bideratutako lehen sektore baten garapenean murgildu zen. Beste modu batera esanda, baso-baliabideen ustiapenaren intentsifikazioa eman zen, nekazaritzaren alternatiba moduan sortuko ziren jarduerak indartu eta hala, bertan produzitzea ezinezkoa zen alea edota bestelako produktuak inportatu ahal izateko. Horregatik, Gipuzkoa burdinazko produktuen esportazioan eta nazioarteko transakzio ekonomikoetan espezializatu zen, batik bat bertan ekoizitako ontzien bitartez egingo zirelarik biak.¹⁸

Álvarez eta Alfredo Martín García (edit.), *Campo y campesinado en la España Moderna. Culturas políticas en el mundo hispano*, Leon, Fundación Española de Historia Moderna, 2012, 443. orrialdea.

¹⁶ Iraupen luzeko (edo betiereko) kontratua da kontratu enfiteufikoa. Jabeak urteko errenta finko baten truke, maizterrari jabetza “eskaintzen” zion, gehienetan jabegoa higiezina izanik. Nekazaria lurra ongi lantzerako beharirik egongo ziren. Kasu gehienetan, Eliza, Koroa eta jaun nagusienak izango ziren kontratu mota hauek eskainiko zituztenak. Frederic CHORDÁ, Teodoro MARTÍN, Isabel RIVERO, *Diccionario de términos históricos y afines*, Madril, Ediciones Akal S.A., 2012, 124. orrialdea (*Enfiteusis*); Jaime COLÁS GIL (supervisor.), *Gran Voz, Diccionario de términos de historia*, Bartzelona, Bibliograf S.A., 1997, 149. orrialdea (*Enfiteusis*).

¹⁷ Álvaro ARAGÓN, “El sector agrario guipuzcoano en la encrucijada de los siglos XVI y XVII” in *Lurralde: investigación espacial*, 38. alea, 2015, 91-92. orrialdea.

¹⁸ L.M. BILBAO eta E. FERNÁNDEZ DE PINEDO, *Opus cit.*, 103. orrialdea; Manuel MONTERO, *Historia general del País Vasco*, Donotia, Txertoa, 2008, 166. orrialdea.

Egoera honetan garatuko ziren hain zuzen ere urtetan zehar Gipuzkoako ekonomiaren bi adar nagusiak izango zirenak: ontzigintza eta burdingintza, beti ere lurralde abeltzaina zela ahaztu gabe. Honek, dena den, ez du esan nahi zerealgintza erabat baztertuko zenik, inondik inora.¹⁹

Bai ontzigintzak (eta jarduerari loturiko beste lanbideak: garraioa, arrantza...) baita burdingintzak ere egurra ezinbesteko lehengaia zuten eta esan daiteke, bi jarduerak izango zirela (bereziki burdinolak) gipuzkoar basoaren ustiaketa eta erabilera handiena egingo zutenak.

Ontzigintzari dagokionez, pentsatu behar dugu XII. mende amaieratik ezagutzen direla balea arrantzaren lehen erreferentziak euskal kostaldean²⁰, eta ziurrenik bertan erabilitako ontziak euskal portuetan ekoiztuko ziren. Dena den, ontzigintza tradizionalen pentsatu beharko genuke, artisau-lanak izango zirelarik, eta ez modu ia industrial eta sistematikoan eraikitako nabigatzeko makinak.²¹ Jatorrizko artisautza lanetatik geroz eta espezializatuagoa zen jarduera industrialak garatzen joango zen Erdi Aroan zehar, Iberiar Penintsulako 3 ontzigintzagune nagusiak definituko zirelarik Penintsulan (Kantauriar kostea, Andaluziar kostea eta Mediterranearen kostea); dena dela, esan daiteke Kantauriar eremuko ontzigintza izan zela oparoena, besteak beste Gipuzkoa eta Bizkaiak eskaini zezaketen egur eta burdina ugariagatik. Aitzitik aipatutako zereal defizitak eragindako zereal inportazio beharrak ere ontzigintzaren garapena bultzatu zuen hein handi batean. Gainera,

Durante los siglos XIV y XV se observa un crecimiento de la actividad naviera en el litoral cantábrico, (...) donde no sólo se construían barcos, sino que se estableció un tráfico comercial del que los naturales, amparados por

¹⁹ Á. ARAGÓN, 2015, 91. orrialdea.

²⁰ Biarritz, 1199; Mutriku, 1200; Getaria, 1220; Zarautz, 1237; Donostia, 1292; Hondarribia, 1297; Bermeo, 1297; Plentzia, 1299; Lekeitio, 1381. José María UNSAIN, *Euskal baleazaleak. Bereziziko historia baten irudiak eta aztarnak. Balleneros vascos. Imágenes y vestigios de una historia singular*, Donostia, Untzi Museoa, 2012, 19. orrialdea.

²¹ Ana María RIVERA, "Paisaje naval, construcción y agentes sociales en Vizcaya: desde el medioevo a la modernidad" in *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, Untzi Museoa-Museo Naval, Donostia, 1998, 50. orrialdea.

*privilegios que obligaban a que los fletes se realizaran en naves castellanas, pasaron de ser simples transportistas a convertirse en mercaderes.*²²

Ontzigintzaren garapena, bestalde, Koroak itsas-armada indartzeko zuen interesak bultzatuta ere asko garatuko zen, bereziki Errege-Erregina Katolikoek ostean.

Burdinolekin ere antzekoa gertatu zen; geroz eta teknologia espezializatuagoa garatzen joan zen neurrian²³, burdina produkzio geroz eta handiagoak eskuratzeko gaitasuna egongo zelako, eta hori mea puruari eta basoek eskainitako egur-ikatz ugariari esker izango zen. Esan daiteke, gainera, ontzigintza bera garatzeko aukera ferroiek eskainiko zutela, eta honekin batera, euskal merkatariek euskal burdina salduko zutela Europako merkatuetan.

Hortaz, esan bezala, nekazaritzaren gaitasun faltaren aurrena, gipuzkoar ekonomia bere baliabide naturalek eskainitako lehengaien esplotazioan espezializatuko zen. Badirudi jarduera hauek Berant Erdi Aroan zehar martxan egon zirela, baina bereziki azken bi mendeetan izango zuten hazkunde handiena, basoan eragindako presioa handituz.

XIV. mende amaierara arte, deforestazioa²⁴ ez zen kezkarria izango, Gipuzkoako basoaren aniztasun eta oparotasunagatik, ez zirudielako agortuko zenik.

²² Francisco FERNÁNDEZ, “Astilleros y construcción naval de la España anterior a la ilustración” in *España y el ultramar hispánico hasta la Ilustración: I Jornadas de historia marítima*, 1989, 36. orrialdea.

²³ Burdinola hidraulikoen agerpen eta orokortzea XIII. mendetik aurrera emango zen Gipuzkoa eta Bizkaian. Teknologia berriarekin, burdina produkzio askoz ere handiagoak lor zitezkeen, kalitate oso onekoak. Dena den, inbertsio handiak beharrezkoak ziren, teknologiak berriak eskatzen zituen azpiegituren (batik bat uren kanalizazioak, labeak, auspoak...) handitasunagatik. Luis María BILBAO, “Introducción y aplicaciones de la energía hidráulica en la siderurgia vasca, siglos XIII-XVII. Addenda et corrigenda a una versión historiográfica” in *Studia Historica: Historia Moderna*, 5. alea, 1987, 61. orrialdea.

²⁴ Deforestazioa ez da kontzeptu ekologikoa, utilitarioa baizik. Helburua, basoaren beharra duten jarduera guztiek oreka mantentzea da, denek behar dutena izatea. (Gaur ulertzen dugun deforestazioa XVIII. mendean hasiko zen). Álvaro ARAGÓN, “La importancia de los montes comunales en el desarrollo de la sociedad urbana vasca en el tránsito del medievo a la modernidad (siglos XV y XVI)” in *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, 69. alea, 2001 (I), 74. orrialdea.

Horregatik, jarduera guztiek erabil zezaketen basoa, murrizketa handiegirik gabe.²⁵ Ontzigtza eta ikazkintzak (burdinoletarako ezinbestekoa zen lehengaiak) basoaren kudeaketa oso konplexua eskatzen zuten, eta Erdi Aro amaieran basoak behar horietara moldatuko zituzten, ondorengo mendeetan bezalaxe.

XIV. mende amaiera edo XV. aren hasieratik, bigarren sektoreko jardueren indartzea eman zen neurrian²⁶ basoaren beharra zuten jarduera guztiak batera ematea zailagoa izango zen. Momentu horretatik aurrera, zenbait espezieren gehiegizko ustiapena antzematen hasi zen, basoarekiko kezka hasiz.

Basoak eskainitako baliabideen gaineko presioa geroz eta handiagoa zen neurrian, Berant Erdi Aro amaieran gatazka ugari gertatuko ziren, bereziki Bando Gerrak izango zirelarik emaitza esanguratsuenak. Bando gerrak, besteak beste, baso-baliabide hauen kontrola lortu, ez galdu edo ez banatzeko asmoz azalduko ziren. Istiluak bai Ahaideen artean, bai hiribildu eta Ahaideen artean eta baita Ahaide eta nekazarien artean emango ziren.

Jakina denez, hiribilduek garaipena eskuratuko zuten, bereziki Koroa bera izango zelako garaipen honetan interesatuena, Ahaide Nagusien bazterketarekin, Koroak ordura arte Jaun landatarren eskuetan zeuden eskubideak zentralizatzeko aukera ikusi zuelako. Zentzu honetan, begi-bistakoa da Ahaide Nagusien porrota oso handia izan zela²⁷, besteak beste, eurek lortu nahi izan zuten bereizketa pribilegiatuaren aurrean, Gipuzkoa, Bizkaia, eta Araba eta Nafarroako lurralde batzuetan kaparetasun unibertsala errotu zelako.

Dena dela, egoera hark onurarik ere ekarriko zien Ahaideei, azken batean euren leinuak nolabait instituzionalizatzeko aukera izan zutelako. Hiribilduen garaipenarekin, Ahaide Nagusiak hiribilduetan integratzen joango ziren (lehenagotik zetorren prozesua), eta hiribilduko jardueretan jardungo ziren, merkataritza bezalakoetan. Esan daiteke, beraz, kasu askotan, Ahaide eta merkatari handien fusioa

²⁵ Álvaro ARAGÓN, “Labores forestales en Gipuzkoa durante los siglos XVI-XVIII” in *Zainak*, 17. alea, 1998, 112. orrialdea.

²⁶ Aragonen arabera, momentu hauetan nekazal eta abeltzain hazkundeak ere gertatuko ziren, basoari eginiko presioa are gehiago handituz. Á. ARAGÓN, 2001, 69. orrialdea.

²⁷ José Ángel ACHÓN, “Los parientes mayores” in *Iura Vasconiae*, 3. alea, 2006, 235. orrialdea.

eman zela, eta aurreko garaietan landan izan zuten nagusitasun ekonomikoak hiribilduaren baitan ere jarraituko zuela.

Eta hain zuzen ere, hiribilduetan integraturiko Ahaideak izango ziren basoa bezalako baliabide estrategikoen kontrolaz jabetzen joango zirenak. Lehen ikuspuntu batean, Koroak interesa izango zuen baliabide hauen kontrol eta erabileran, eta horregatik kontzeju eta Aldundiei berauek kontrolatzeko ahalmena emango zitzaien. Kontua da, Ahaideak berauetan integratzen joango zirela, eta azken finean, Erakundeek hartutako erabakietan Jaunen interesak defendatuko zirela (hala nola, basoaren erabilera ordaintzeko kanonak merke mantentzea). Azken finean, hiribildu eta Probintziak monopolizatuko zituzten baliabide hauen erabilerak, kapitalismoari atea irekiz edo behintzat bidea asko erraztuz, baina funtsean feudalismo garaiko egiturak gehiegi aldatu gabe:

*Como afirma Guy Bois, el responsable de la economía de mercado – representado por las villas- no es el capitalismo sino la propia configuración feudal.*²⁸

Argi eta garbi hiribilduek jaurgotze prozesua aurrera eramango zuten eta prozesu horretan, ordura arte herri osoaren erabilerara irekita zeuden lur komunalen erabilera mugatzen joango zen. Ahaide Nagusiak baztertuta (hobeki esanda hiribilduetan integratuta), hiribildua lur komunalez jabetzen joango zen, euren erabilera arautuz eta nolabait pribatizatuz. Testuinguru honetan, oligarkizazio prozesu indartsua gertatzen joango zen Gipuzkoa osoan.

Nekazaritza eta abeltzaintzari dagokionez, Berant Erdi Aroko bilakaerak aztertzea ez da lan erraza. Dena den, egoera orokorra ulertzerakoan, joera nagusia malthustariarra izan zela pentsa dezakegu²⁹: populazioaren hazkunderako joera metatuak, produktibitate mugatuko abeltzaintza-nekazaritza ekonomia baten baitan, hazkunde ekonomikoaren eta populazioaren arteko harremanean desorekak eragiteko ahalmena izango zuen epe luzera, heriotza-krisialdien pilaketan agerpena eraginez

²⁸ Á. ARAGÓN, 2001, 67. orrialdea.

²⁹ Emiliano FERNÁNDEZ DE PINEDO, *Euskal Herriko ekonomi hazkundera eta gizarte-aldaketak (1100-1850)*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 1999, 57. orrialdea.

zikloaren amaieran. Horregatik, alearen inportazioa ezinbestekoa izango zen, aipatu bezalaxe.

Beraz, laburbilduz esan daiteke, Berant Erdi Aro eta Modernoko gipuzkoar ekonomiaren, eta oro har gipuzkoar egoera politiko-sozialaren, egituraketan basogintza oso garrantzitsua izan zela, eta hortaz, baso komunalen garrantzia azpimarratzea ezinbestekoa da.

Sin la existencia de los comunales no se hubiese podido producir el despegue de la sociedad urbana vasca en el tránsito entre el medievo y la modernidad. (...) Gracias al desarrollo de estas actividades y de su demografía –en un proceso de retroalimentación- las villas pueden fortalecer sus bases económicas y, con ellas, las jurídicas, sociales y políticas.³⁰


5. DOLAREDUN BASERRIEN INGURUKO IKERKETA ARKEOLOGIKOAREN EGOERA

XVI. mendeko dolaredun baserrien inguruan Gipuzkoan egindako lan arkeologikoak, 2013. urtera arte, guztira 27 izan dira.³¹

Lehenago aipatu bezala, nire lana Marian Gereñuren lana oinarri hartuta hasi nuen arren, esan beharrekoa da bere lanak ez duela Gipuzkoan egindako lan arkeologiko guztia azaltzen (17 lan bakarrik aipatzen ditu), eta ondorioz, *Arkeoikuska* urtekariekin osatu behar izan dut nagusiki eranskinetan ikusgai dagoen lan arkeologiko guztien laburpena. Dolaredun baserrien artean kronologia ugari azaltzen diren arren (XVI. eta XVIII. mendeen artekoak denak), lan honetan soilik XVI. mendekoak hartu ditut aintzat, dolaredun baserrien agerpena ikertzea delako helburua.

³⁰ Á. ARAGÓN, 2001, 102. orrialdea.


³¹ Eranskinetan ikus daitekeen taulan lan guztien laburpen sistematikoa ageri da (IKUS, 1. eranskina).



1. irudia: Gipuzkoan egindako lan arkeologikoak. Urdinez, Gereñuk aipatutakoak; Berdez, Arkeoikuskak ere aipatutakoak.

Orain arte egindako lanak bere osotasunean ulertzeko asmoz dolaredun baserri guztiak mapa batean kokatzen baditugu (IKUS 1. irudia), orokorrean ikus dezakegu dolaredun baserriak, XVI. mendean Gipuzkoa osoan zehar barreiatu agertuko zirela, eta hortaz, ez zela soilik kostalde inguruan bereziki kontzentratu fenomeno izango.

Barnealdean	19
Kostaldean	8
Guztira: 27	




2. irudia: grafikoa. Dolaredun baserrien kokapen geografikoa Gipuzkoan.

Hain zuzen ere, datuak modu hertsian ikusita, lan arkeologiko osoaren %30a izango da soilik kostaldeko herri batean azaldutako dolaredun baserriaren inguruan egin.³² (IKUS 2. irudia).

Aldi berean, badirudi nolabaiteko desproporzioa dagoela dolaredun baserri hauen gaur egungo posizioaren inguruan. Izan ere, dolaredun baserrien presentzia bereziki landatarra izango zela uler dezakegun arren (azken batean, basoaren beharra duen nekazal jarduera bat izango delako), egun lan arkeologiko gehienak herriguneetan egin dira (lan guztien %52a). (IKUS 3. irudia).

Gune Urbanoa	14
Landa	8
Ezezaguna	5
Guztira:	27



3. irudia: grafikoa. Dolaredun baserrien banaketa gaur egun.

Orain arteko lan arkeologikoaren baliagarritasuna zalantzatan jarri ezin daitezkeen arren, nabarmena da 27 lan arkeologikok osatzen duten lagina hain eremu zabalerako oso urria dela, eta beraz, bertatik lor daitezkeen emaitzak ez dira garaiko egoeraren eredu. Barnealde eta kostaldearen arteko proportzioa, baita hirigune eta

³² Dena den, ezin ahantz daiteke, 27 lan arkeologikoetatik 5 Donostian egin direla, azken batean koloniek harreman gehien egongo zen lekuetariko bat izanik berau. Bergaran eta Seguran ere beste lekuetan baino kontzentrazio handiagoak antzematen dira, 4 eta 3 lan arkeologikorekin, hurrenez hurren.

landaren artekoa ere, ez da XVI. mendeko errealitatearen adierazlea izango, orduan askoz ere dolaredun baserri gehiago egongo zirelako, horietariko asko oraindik ere arkeologikoki aztertuak izan ez direnak (ezagutzen ez direlako edo kontserbatzen ez direlako).

Landa eta gune urbanoan kokaturiko baserriei dagokionez, pentsatu behar dugu duela bost mende, euskal herrien tamaina oraingoa baino askoz ere txikiagoa izango zela, eta kasu askotan, gaur herri eta hirien erdiguneetan dauden eraikinak sortuak izan zirenean akaso ez zirela hain gune urbanoetan egongo. Dakigunez, azken urteetan izandako hazkunde demografikoak eraginda, urbanismoaren presioa oso handia izan da eta gure herri eta hiriak indartsuki hazi dira, gune periferikoak erdiguneetan integratuz. Honek azalduko luke, neurri handi batean lan arkeologiko gehienak gune urbanoetan egitea.

Erdiguneen zabalkundeak eragindako presio urbanistikoa, ondarearentzat askotan kaltegarria izan den arren, kasu honetan³³ (askotan dolaredun baserriak suntsituak izan diren arren, Irungo Oianguren baserrian, esaterako) zenbait dolare egitura identifikatu, erregistratu eta ikertzeko aukera eman du. Honek ere, erdigune eta landaren arteko desoreka azalduko luke; landako baserrien kasuan, presio urbanistikoa askoz ere arinagoa izan den neurrian, dolaredun baserriak ikertzeko aukera txikiagoa izan da, egoera arkeologikoa ez litzatekeelako hain premiazkoa izango.

Honek guztiak, gure ondarearen ahultasuna begi-bistan uzten du. Dakigunez, gure ondarea, eta batik bat arkitektura, gizartea garatzen doan neurrian eraldatzen doa, egoera berrietara egokitzen. Kasu honetan, dolaredun baserri askok aldaketa handiak jasan izan dituzte urtetan, logikoa den moduan. Kontuan izan behar dugu baserri osoa dolare makinariaren inguruan egituratzen zenez, dolareak bere funtzioa galtzen zuenean, makinariaren egitura osoa kontserbatzea deserosoa izan zitekeela, aipatutako dimentsio handiengatik. Horregatik, askotan, dolare egiturak ezagutzeko lan arkeologikoak egin direnean, zimenduak ezagutzeko aukera egon da soilik, edo bestela dolare egituraren pieza ezberdinen berrerabilpenak, makinariaren egurrezko

³³ Dolaredun baserrietan egindako lan arkeologiko asko herri eta hirien erdiguneen hazkundeak eragindako presio urbanistikoak bultzaturik izan diren moduan, pentsatu behar dugu fenomeno hau Espainia osoan eman dela, burbuila inmobiliarioak aztarnategi asko ezagutarazi dituelako, nahiz eta askotan ondare material hori suntsitua izan den, lanek aurrera jarraitu dutelako.

piezak kendu edo lekualdatu zirelako. Hau dela eta, informazio asko eskura daitekeen arren, egindako lan gehienetatik eskuratutako informazioa nahi baino txikiagoa dela esan daiteke, kasu askotan materialak testuingurutik at (Donostiako Boulevardeko habearen kasua) edo behintzat jatorrizko posiziotik kanpo agertu direlako.

Ondarearen ahultasuna ikusita, beraz, ezinbestekoa da lan arkeologikoek martxan jarraitzea, baserri-ondarearen ezagutza eta kontserbazioa ahalbideratuko duen modu aproposena delako.

Arzoz eta Alonsok diotena ere kontuan hartzeko iritzia da:

Jatorrizko arkitekturaren aztertzaile eta zaleek, maiz azaltzen dituzte beren liburuetan postaz saltzeko gaien katalogo antzekoak. Deskribapen-testu hotzek, harrigarriro hutsik dauden eraikinen argazkiek eta marrazketa-lumaz egindako eskema-marrazkiek, eraginkortasun garbiz azaltzen digute jatorrizko arkitektura jada hildako mundu baten arkeologia purua bailitzan. Forma hutsezko ikuspegi-mota funtzionalista eta testuinguruz kanpoko horrek, jatorrizko arkitektura, sortu zuen munduarekiko arrotz eta isolatu den atal moduan harraraztera eramán gaitzake. Bide horretatik ezinezkoa da bai azterlari baita irakurleek ere, jatorrizko arkitektura benetan zer den ulertzea.³⁴

Dolaredun baserrien inguruan egindako lan arkeologikoen emaitzak argitaratzean eskuragarri jartzen den informazioa oso azalekoa dela ikus daiteke, kasu gehienetan oinarrizko datuak ere eskaini gabe (dimentsioak, posizioa, kronologia hipotesiak, irudiak...)³⁵. Eta halako informazioarekin oso zaila da hipotesirik planteatu edo dolaredun baserrien inguruko gogoeta sakonik egitea.

Beraz, irakurleari eskainitako emaitzak modu sakonago batean eskuragarri jartzea oso komenigarria litzatekeela pentsatzen dut.


Bestalde, Ezkio-Itsasoko Igartubeiti Baserriaren salbuespenarekin, egindako lan arkeologikoetariko askoren ostean ez da ondarearen garrantzia ezagutarazteko

³⁴ I. ARZOZ, A. ALONSO, *Opus cit.*, 29. orrialdea.

³⁵ 5 dolaredun baserri mapa batean kokatzea ezinezkoa egin zait, eta askorekin zailtasun handiak izan ditut.

inolako proiekturik abian jarri, eta hori akats moduan ikusten dut, ondarea denona dela kontuan izanik, horrela gure historiaren ezagutza asko zailtzen dela ikusten baitut.

Igartubeiti baserriaren proiektua, zentzu horretan, oso goraipagarria dela azpimarratu behar da. Baserriaren musealizazioaz gain, bertan antolatzen diren jarduera ezberdinekin, gizarteari bere historiaren berri izateko aukera ematen zaio modu oso didaktiko eta entretenigarrian, eta hau guztiz positiboa dela deritzot. Gainera, bada lan monografiko bat arkeologo eta historialariek proposaturiko bilakaera historikoaren azalpenarekin, material grafiko oso interesgarriak dituena.³⁶



4. irudia: habe eta ardatz prentsaren irudikapena. (ESCRIBANO-RUIZ, 2014, 13)

³⁶ Alberto SANTANA [et al.], *Igartubeiti: Gipuzkoako baserri bat: ikerketa, zaharberrikuntza, zabalkundea. Un caserío guipuzcoano: investigación, restauración, difusión*, Donostia, Gipuzkoako foru Aldundia. Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamendua, 2003.

Guztira egindako lan arkeologiko guztien emaitzak oso ezberdinak diren arren, bereziki aurkituriko aztarna materialen egoeraren eta posizioaren ondorioz, esan beharrekoa da Gipuzkoan aurkituriko dolare eredu nahiko uniforme dela egituren forma eta mekanismoei dagokionean. Eskaintzen zaizkigun datu urriekin aurkituriko aztarnen neurrien berri izatea zaila den arren, badirudi garai bertsuan sortuko ziren dolareak nahiko antzekoak izan zirela. Hala, habe eta ardatz prentsak izan ziren erabili ziren dolare motak (IKUS 4. irudia):

Dolare mota honetako oinarrizko piezak habea, ardatza eta pats-ohola ziren. Hauek gain, noski, mekanismoak behar bezala funtzionatu ahal izateko beste pieza batzuk, hala nola: habeari eta ardatzari eusteko berniak, ainguraketak, ardatzeko zurruna, etab. Gainera, prentsa hauek kontrapisu bat izan zezaketen, habearen muturrean zintzilikatutako harri handi batez osatua berau (bereziki landan), edo, aztertu diren kasuetan bezala, lurrean ainguratutako kontrapisu finko bat (bereziki hiriguneetan).

Lurrean ainguratutako kontrapisu finkoari tinko lotzen zitzaion ardatza; hau biratzean habea mugitu egiten zen, eta honek pats-oholean presioa egiten zuelarik sakatu egiten zuen sagarra edo mahatsa. Metodo honetan, presioa ardatzaren segidako manipulazioen bidez egiten zen, eta tinko ekin behar izaten zitzaion mekanismoak tentsioa galtzen zuen bakoitzean. Gainera, ardatza kontrako norabidean biratuz gero habea atsedean punturaino igotzen zen.³⁷

Mekanismo honek baserri osoaren egituraketa erabat baldintzatuko zuen, azken batean, baserria bizileku eta produkzio gune izan arren, bere lehen funtzioa sagardoa produzitzea izango baitzen. Horregatik, pentsatu behar dugu dolaredun baserrien agerpenak garrantzia handia izan zuela, bigarren sektoreko jarduera konkretu batean espezializatzeko aukera ematen zuen arren, familia erabat nekazariak eramango zituztelako aurrera, kasu guztietan sagardogintza nekazaritzarekin konbinatuz eguneroko bizitzan. Pentsatu behar dugu, gainera, sagardoa urte sasoi jakinetan egiten zela (udazkenean), eta beraz, bitartean dolareen jabe edo maizterrek beste lan batzuk egin beharko zituztela aurrera ateratzeko, ezinbestez.

³⁷ M. GEREÑU, *Opus cit.*, 239-240. orrialdea.

6. ERREALITATE ARKEOLOGIKOAREN AZALPENA

Orain arte esan moduan, Gipuzkoak nekazal produkzio defezitarioa izango zuenez, atzeritik inportatzea ezinbestekoa izan zen lurraldearen biziraupena bermatzeko. Kasu honetan, Udalek eta Aldundiak interes berezia izango zuten atzerriko elikagaiak eskuratzerako orduan eta hori ordenantzetan islaturik dago, atzerriko merkatariei babes berezia eskaintzean (IKUS 2. eranskina).

Herri eta probintzia legediek zenbait elikagaien etorrera erraztu zuten bezalaxe, beste batzuekin neurri protekzionistak erabiliko ziren, gutxien zeuden produktuak atzerriratzea debekatzen (IKUS 5. eranskina).

Alearen defizita erabilitako argudio indartsuena izanik, tradizionalki Gipuzkoako nekazaritzaren gaitasun falta defendatu izan du historiografiak. Baina Alberdiren ustetan baieztapen hori erabatekoegia da.³⁸ Bere ustez, iturri idatziek argi erakusten dute Gipuzkoan elikagai askotan defizita zegoela; sagardoaren kasuan, ordea, ordenantzek superprodukzioa azaltzen dute.

1583ko Gipuzkoako Ordenantzek halakorik adierazten ez duten arren, 1674 eta 1696koek Probintziatik kanpoko sagardoa ekarri eta saltzea debekatzen zuten, Felipe II.ak 1586an agindu bezalaxe. (IKUS 3. eranskina). Eta honek, zalantzarik gabe Gipuzkoaren sagar produkzioaren garrantzia adieraziko luke; produktu baten etorrera debekatzean, bertan nahikoa ekoiztuko zela ulertzen da eta bertako prezioa altu mantendu nahiko zela.

Beraz, Gipuzkoaren elikagai produkzioaren inguruan zabalduko dagoen iritzia okerra dela baieztatu daitekeela deritzot. Gipuzkoako nekazaritza bikoiztasun batean egongo zen: zenbait elikagai (bereziki zerealak) produzitzeko gaitasun txikia izango zuen moduan, sagardoaren produkzioa merkatura begira egongo zen, eta atzerri produkzioetatik babestuko zen.³⁹ Honek azalduko lituzke, gaur egun egindako lan

³⁸ Xabier ALBERDI, "La comercialización de la producción agrícola guipuzcoana durante la Edad Moderna" in Francisco José ARANDA (koord.), *El Mundo Rural En la España Moderna*, Cuenca, Ediciones de la Universidad de Castilla La Mancha, 2004, 293-294. orrialdea.

³⁹ Lapurdiko sagardoaren etorrerari aipamen berezia egiteak adieraziko luke neurri handi batean lurralde jakin honetako sagardoaren etorrera izango zela indartsuena, eta beraz, bereziki ekidin nahi izango zena. Kontuan izan behar dugu Lapurdik Gipuzkoarekin egiten duela muga, eta gertutasun honek ekar zitzakeen erraztasunez gain, lapurtar itsasontzien joan-etorri handia egongo zela gipuzkoar kostan, bereziki Hondarribia eta Pasaiaiko portuetan

arkeologikoen emaitzak, eta beraz, Gipuzkoan eman zen sagardogintza espezializazioa.

Honi loturik, Aragonek proposatzen duen Gipuzkoaren bikoiztasunaz hitz egitea interesgarria litzateke; Aragonen ustez, historiografiak defendatzen duen XVI. mendeko zerealaren hedapena orokorregia da; zerealen hedapena barnealdean ematea ulergarriagoa izango zen, ez ordea kostaldean:

Eso sí ocurría probablemente en el interior de la provincia y a diferentes ritmos, pero no así en la costa guipuzcoana y sus cercanías –Hernani, Urnieta, Aya, Cestona o Azpeitia- o en el hinterland de San Sebastián y el puerto de Pasajes, donde la demanda de caldos, esencialmente sidra y chacolí, para abastecer a la Armada real, la flota mercante y de Terranova seguiría manteniendo una alta demanda.⁴⁰

Ordenantzak irakurtzen, sagardoaren garrantzia XVII. mendean ere oso handia zela ikusten da (IKUS 3. eta 4. eranskinak).

Egoera honekin, portudun guneak azpimarragarriak direla ikusi behar dugu, azken batean, hasieran planteaturiko hipotesiari jarraiki, sagardoak behar kolonialei erantzungo liekeelako, eta portudun guneak izango zirelako kolonialismo horretan zuzenen parte hartu zuten lekuak, bertatik abiatu baitziren ontziak Amerikara kasu askotan, hala merkataritzan nola arrantzan jarduteko.

Pentsatu behar dugu, gainera, gipuzkoar kostako herriek Amerikako kolonialismoari etekina atera nahi izango ziotela. Lehenago esan moduan, gipuzkoar portuak arrantzarekin harremanetan agertu dira, XIII. mendetik aurrera, gutxienez eta, merkataritza europarrean ere zeresanik izango zuten. Horregatik, pentsatu behar dugu Amerikaren konkista aurretik ere portuak oso bizirik egongo zirela; Amerikak eskainitako aukerekin, ordea, bertako mugimendu ekonomikoak are gehiago indartuko ziren.

⁴⁰ Á. ARAGÓN, 2015, 100. orrialdea.

1498ko Donostiako Ordenantzak⁴¹ honen adibide dira; Amerikaren konkistaren hasierako unean onartuak izan ziren arren, Amerikaren aurkikuntza beraren aurretik Donostiak izandako merkatal bilakaeraren ondorio izango zirela antzeman daitekeelako.⁴²

Ordenantza hauetan sagardoaren inguruko araudia ageri da. Hauek irakurtzen atera daitekeen ondorio nagusia sagardoa eguneroko bizitzan oso garrantzitsua zela da, momentu oro hiribildu barnean sagardo existentzi nahikoak egotea bermatu nahi zelako.

Printzipioz araudia ez zen Donostiatik kanpoko sagardoekin erabat debekuzalea; hiritik kanpoko sagardoak ekar zitezkeen, beti ere Udala jakinaren gainean jarriz eta horretarako baimena zegoen egunak erabiliz. Sagardo horiek soilik autokontsumorako izan zitezkeen, eta bertakoak amaitzean bakarrik ahalko ziren saldu.

Beraz, bertakoek lehentasuna izango zuten. 144. legeak dioenez, Pasaia, Altza eta Artigasek (hiruak Donostiako jurisdikziopean, baina hiribildutik kanpo) lehentasuna izango zuten Donostiaren hornikuntzan. Atzerriko sagardoak ziren, baina gainontzeko lekuen aurretik lehentasuna zuten.

144. lege honen esanahiaren baitan ulertu behar dugu 9. eranskinean irakurgai dagoen 1492ko dokumentu argitaratugabea. Bertan, Errege-Erregina Katolikoek Gipuzkoako korregidoreari eta bere ordezkoiari agintzen diete Ibaetako baserrietako biztanleen kezak entzuteko, baserritar hauei Donostiako kontzejuak debekuak jartzen baitizkie beren sagardoak hiribilduan saltzeko.

Izan ere, dokumentuan jartzen duenez, Ibaetako bizilagunek eurek ekoitziriko sagardoak hiribilduan bertan saltzen zituzten. Azken urteetan, ordea, Donostia bertako bizilagunek ekingo zioten sagardoa ekoizteari eta Ibaetako sagardoei hiribilduan sartzea debekatu zitzaien.

⁴¹ Maria Rosa AYERBE, "Las ordenanzas municipales de San Sebastián de 1489" in J. Ignacio TELLECHEA (zuz.), *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, 40. alea, 2006, Donostia, 11-91. orrialdeak.

⁴² Amerikaren konkista hasi ostean eman baziren ere, oso goiz izango litzateke oraindik halako legedia garrantzitsua garatzeko Amerikak eskainitako aukerek bakarrik bultzatua izateko. Beraz, aurretik etorriko litzatekeen hazkunde baten ondorio modura uler daiteke.

Ez kasualitatez, XVI. mende hasieran emango ziren Donostia inguruko lur gehien salmentak, eta jakina, horiek erosteko aukera izango zuten bakarrak hiribilduko merkatari aberatsak izango ziren kasu gehienetan; hauek higiezinetan inbertituko zuten diru hori, lurak erosiz eta bertan ondoren errentan jarriko ziren baserriak eraikiz, baita zegozkien sagardiak ere.⁴³ Hala, Donostiako merkatari aberatsenak hiria hornitzeko beharrezkoak ziren sagardoak produzitzeko gai izango ziren, Donostia inguruko ekoizleen kaltetan:

(...)de po- /¹⁸ co tiempo a esta parte, en la dicha villa de San Sebastián, /¹⁹ los vezinos e moradores d'ella han cresçido y mul- /²⁰ tiplicado y fecho muchos mançanares, de que fassen /²¹ grandes caudales de sydras (...)

Beraz, pentsa dezakegu Donostia inguruko landan egindako inbertsio horien emaitza izan zitezkeela portu inguruko produkzio-guneen jatorria, hain zuzen ere ordenantzek babestutakoak.

Azalpen hau nahiko logikoa dela pentsa daiteke Donostian *Podavines* izeneko langile taldea existitzen zelako XVI. mendean. *Podavinesak* baserritar jornalariak ziren (bereziki Donostia eta Getarian zeuden).⁴⁴ Euren lana sagarra eta mahatsa produzitzea zen, ondoren ardo eta sagardoa sortu eta hiribilduan saltzeko. Maizterrak zirenez, soldata jasotzen zuten.

Hiribildu eta jornalarien artean gatazka asko egon ziren, *Podavinesek* geroz eta baldintza txarragoak eta soldata baxuagoak zituztelako, eta eurek ekoiztitako zukuak geroz eta garestiago saltzen zirelako portuetan. Gatazka ugari egon arren, jabeek aterako zuten etekin gehien, lehenago esan bezala, kontzejuetan sarturik zeudenez, euren interesen aldeko neurriak hartuko zirelako.

Sagardoaren inportazio debekuekin, bertako ekoizleek edari alkoholadun hauen salmentaren monopolioa eskuratuko zuten, hala prezioak gehiegi jaistea ekidinez. Negozioaren “biribiltasuna” ikusirik, herri ordenantzek portuetatik irtengo ziren

⁴³ Á. ARAGÓN, 2015, 91. orrialdea.

⁴⁴ Á. ARAGÓN, “Los podavines: labradores jornaleros en San Sebastián durante los siglos XV al XVIII” in *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, 33. alea, 1999, 7. orrialdea.

naoak bertako sagardoa erostera behartuko zituzten, bertako merkatarien eta produktoreen etekin handiak bermatuz.⁴⁵

Ildo horretatik, pentsatu behar dugu Berant Erdi Aro Amaierako eta Aro Modernoko merkataritza eta, oro har, atlantikoko ontzien mugimenduak, ikaragarri hazi zirela, eta ontzi guzti hauek euren sagardo erreserbak beharko zituztela. Aitzitik esan bezala, sagardoaren kontsumoa terapeutikoa izan ala ez; Gipuzkoa hezeak sagardo produkzio ohitura izango zuen lehenagotik⁴⁶, eta momentu hauetan ekoizpena intentsifikatu egingo zen, eskaera guztia asetzeko, berriro ere bat etorritz egungo errealitate arkeologikoarekin.

Donostiako kasua ezagunena den arren, beste portudun herrietan ere akaso bertako sagardo produkzioen aldeko legerik egongo zela susma daiteke. Horren adibide, Debako kasua dugu (IKUS 6. eranskina), 1394, 1412 eta 1422. urteetan emandako ordenantzetan argi ikusten baita Donostiaren jarrera berdina izango zutela sagardoan jatorriari zegokionean, bertakoen erabateko preferentzia arautuz.

Zumaian ere (IKUS 7. eranskina) antzeko zerbait antzeman daiteke; Errezilgo Juan de Basabe maestrearen kasuan, Zumaian sagardoa erosiko zuen. Dokumentu honekin hipotesi moduan planteatu dezakegu Donostian bezalaxe, Zumaiatik irteten ziren ontziek ere agian bertan erosi beharko zutela sagardoa (Basabe maestra zela ikusita logikoa litzateke).

Hondarribiaren kasuan (IKUS 8. eranskina), mugaldeko herria izanik, mugaz bestaldeko sagardoak askoz ere arazo larriagoa izan zirela pentsa dezakegu, azken batean gertutasuna askoz ere handiagoa zelako, eta Iparraldeko ontzien presentzia ere handiagoa izango zelako ziurrenik. Horretatik, mugaz bestaldeko sagardoak ez erosteko legedia zorrotza osatuko zuten.

Testuinguru honetan ulertu behar dugu balea arrantzak Gipuzkoan izango zuen eragina, bereziki Donostia, Pasaia eta Getaria bezalako portuetan. Urtero Ternuara abiatzen ziren arrantzontziak (urte onenetan 30 bat ontzi urteko) 8-9 hilabeteko iraupeneko bidaietarako hornitu behar ziren, eta lan horretan sagardoa oso

⁴⁵ X. ALBERDI, 2004, 296. orrialdea.

⁴⁶ *Ibidem*, 53. orrialdea.

garrantzitsua izaten zen, kasu gehienetan diru kopuru handienetarikoak sagardoan gastatuz. 10. eranskinean ikus daitekeen moduan, eramaten ziren sagardo kopuruak erraldoiak izaten ziren, edari nagusia zelarik eta horregatik, askotan hiribildu eta ontzien hornikuntzak talka egiten zuen:

(...) en torno a las sidras se suscitaban ciertos conflictos de intereses, porque no siempre se producía lo suficiente como para cubrir las necesidades de la población y de los expedicionarios. (...) Nos encontramos así ante una situación en la que entran en conflictola necesidad de satisfacer el consumo interno y la de aprovisionar convenientemente a las naos que se dirigen a Terranova.⁴⁷

Kostaldeko dolaredun baserrien agerpena ulertuta, zer gertatzen da barnealdekoekin?⁴⁸ Barnealdean egongo ziren dolareen kopurua handia izango zela ikusita, pentsa dezakegu portu guztietan ez zela Donostian bezalako araudi zorrotzik egongo eta barnealdeak kostaldea sagardo hornituko zuela. Gainera, Donostian hornikuntza arazoak zeudenean ere, barnealdetik zetorren hornikuntza ere ezinbestekoa izango zela pentsa daiteke.

Gainera, kontuan izan behar dugu portuetan merkatari eta arrantzaleak ez zirela sagardo beharra izango zuten bakarrak; Erret Armadak ere, adibidez, bere sagardo hornikuntza beharko zuen. Ikerketa sakontzeko interesgarria izango litzateke Sevillatik irteten ziren ontziek Gipuzkoa barnealdeko dolareekin negoziarik egin ote zuten ikustea.

Azken batean, XVI. mendean zehar Donostiako aberatsek inguruko lurretan sagardo produkzio guneak sortu zituzten bezalaxe, logikoa da pentsatzea, aberats horiek barnealdean ere inbertitzeko aukerak izango zituztela. Gainera, askoren jatorria, (kasu askotan Ahaide Nagusien garaietatik) barnealdean zegoenez, bertan

⁴⁷ José Antonio AZPIAZU, *La empresa vasca de Terranova. Entre el mito y la realidad*, Donostia, Ttartalo, 2008, 81. orrialdea.

⁴⁸ Donostia oso ongi ezagutzen dugun arren, salbuespena dela eta beraz, barnealdeko egoera ezagutzea zailagoa izango da.

inbertitzea erraza izango zen. Eta aberats horiek barnealde zein kostakoak izango zirela ere oso garrantzitsua da.⁴⁹

Dolaredun baserrien funtzionamendua ulertzeko, lurren jabegoaren inguruan hausnarketa txiki bat egitea garrantzitsua da; izan ere, momentu hartan lurrak juridikoki errege-basoak, partzoneriak, baso frankoak, usabasoak, sarobeak edota baso pribatuak izan zitezkeen⁵⁰, eta printzipioz sagardiak soilik azken hauetan egongo ziren. Hala, ordenantzek basoaren inguruan hitz egiten dutenean, bereziki baso publikoek hitz egiten dute, eta sagastien ezagutza nahiko txikia izango da horregatik.

Dena den, Mari Carmen Mendizabalen elkarrizketa entzun moduan, sagasti gehienak baserrien lurretan bertan egoten ziren gehienetan XX. mendean, nahiz eta kasu batzuetan herri lurretatik gertu zeuden soroetan ere sagasti batzuk egon, denak pribatuak. Beraz, ez litzateke arraroa izango XVI. mendean ere halako egoera izatea.

Amaitzeko, dolareen erabilerearen inguruan ere hausnarketa egitea interesgarria litzateke. Izan ere, pentsatu behar dugu dolareen erabilera oso jarduera espezifikoa zela, udazkenari loturikoa. Baserrien jabe edo maizterrek urtero erabiliko zuten dolarea, baina oso erabilera puntuala zenez, eta herritar ez zutenez dolarerik edukiko, logikoa da pentsatzea jabeak ez zirenek ere, ordainketaren trukean, dolarea erabili ahalko zutela.


Mendizabalek esandakoarekin jarraituz, XX. mendearen erdialdean, behintzat, baserri guztiek ez zuten dolarea izaten (dolare hauek ez ziren XVI. mendekoak bezalakoak izango, askoz modernoagoak eta txikiagoak baizik) eta horregatik urtero sagarra dolarea zuen baserrietara eramaten zen, sagardoa egiteko.

⁴⁹ Hau, besteak beste, barnealdeko jendeak ere aseguru etxeetan, armadore moduan... enpresa horietan parte hartu zutelako izan zen. Casadok dioenez, XV. mendetik, merkataritza egiteko tresnak asko garatuko ziren, eta horrek jende gehiagoren aberastea ekarriko zuen. Hilario CASADO, "La formación del espacio económico Atlántico (siglos XV y XVI). Las transferencias de mercancías y símbolos en la "Primera Edad Global"" in José Ramón DÍAZ DE DURANA eta José Antonio MUNTA (edit.), *La apertura de Europa al Mundo Atlántico. Espacios de poder, economía marítima y circulación cultural*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 2011, 120. orrialdea; Margarita SERNA, *Los viajes pesquero-comerciales de guipuzcoanos y vizcaínos a Terranova (1530-1808): régimen jurídico*, Madril, Marcial Pons, 2010, 51. orrialdea.

⁵⁰ Álvaro ARAGÓN, "Basoa Euskal Herriko historian zehar" in *Uztaro*, 29. alea, 1999, 28. orrialdea.

Mari Carmenen kasuan, Souta Borda eta Aldako Xar baserrietan bizi izan denean (bi baserriak Ergoien auzoan, Oiartzunen), inguruko baserrietara eraman izan dute sagarra: Mendiburu Etxeberri (*Mendintxeberri*), Peruene (*Peune*), Aldako, Arkale eta Mirandazabal (*Xoxuenia*) baserrietara (IKUS 5. irudia).

Dolarearen zerbitzua dirutan ordaintzen zen, eta sagarren pisuaren arabera kalkulaten zen sagardo kopurua.⁵¹ Honekin arazo asko egoten ziren, askotan dolaredun baserrietan ura gehitzen baitzitzairen besteen sagardoei, esperotako kopuruak sagarren jabeei eman eta soberakoa dolarearen jabeen esku geldituz. Hortaz, badirudi, Erdi Arotik datozen ordenantzek adierazitako arazoak orain gutxi arte iritsiko zirela, sagardoari ura nahastea oso zigorturik baitzegoen (IKUS 4. eranskina).



5. irudia: Mari Carmenen bizilekuak (arrosez) eta erabili izan dituen dolareak (urdin argiz).

⁵¹ Karga sagarra (neurri solidoa) 6 zakuk osatzen zuten. Sagarra gazia bazen, zakuak 62-63kg pisatzen zituen eta geza bazen 57-58kg. Karga sagar solidotik karga sagar eta erdi likido lortzen ziren, hau da, 225l.

Akaso XVI. mendeko barnealdeko baserriek funtzionamendua antzekoa izango zen? Ez litzateke harritzekoa izango.

7. ONDORIOAK

Sagardogintzaren garrantziaren inguruan ikertu ostean, esan daiteke orain arte hain erroturik egon den Gipuzkoako nekazal produkzio defizitarioaren ideia birplanteatu beharko litzatekeela, Alberdiren iritziarekin bat etorriz:

El mayoritario empleo de las mejores tierras y de las inversiones en determinados cultivos destinados al mercado (...) debió constituir un factor de primer orden a la hora de provocar que la agricultura de un determinado espacio fuese incapaz para suplir las necesidades alimenticias de su población. En este sentido, el hecho de que la principal producción agrícola guipuzcoana fuese la sidra, destinada incluso a la exportación, debió incidir directamente en su incapacidad para proveer de cereales a toda su población.

52

Izan ere, ebidentzia arkeologikoen eta dokumentuen begi bistan uzten dute sagardoaren produkzioan oso espezializaturik egon zela probintzia osoa, eta hori behar kolonialek bultzatuta gertatuko zen: kolonialismoak eskaintako aberastasunek egin zuten posible espezializazioa eta, aldi berean, sagardo horiek, enpresa kolonialak hornituko zituzten. Espezializazio honek Gipuzkoako antolaketa geografikoa aldatuko zuen, batik bat gaur arte iritsi diren baserrien agerpena eragin zuelako.

XVII. mendetik aurrera artoa sartuko zen euskal landan, eta honek poliki sagastiei kalte egingo zien, bereziki barnealdean, nahiz eta oraindik indartsu mantendu. Justu momentu honetan, euskal marinelen nagusitasun itsastarra apaltzen joango zen, harik eta Utrecht-eko Itunarekin (1713), itsasoan izandako leku ona amaituko baitzen.⁵³


⁵² X. ALBERDI, 2012, 651. orrialdea.

⁵³ Margarita SERNA, *Opus cit.*, 551. orrialdea.

Etorkizunean lan hau osatzen jarraitzekotan, sistematizazio arkeologikoan gehiago sakondu litekeela deritzot, nahiz eta, aipatu moduan, lan arkeologikoen publikazioetan irakurleari eskaintzen zaion informazioa oso urria izan. Garaiko dokumentu historiko gehiago ezagutzea ere interesgarria litzateke, ikuspegi zabalagoak eskain ditzaketelako.

Basoaren ustiaketa aztertzea ere interesgarria litzateke; izan ere, baso komunalen erabilera nahiko azterturik dagoen arren, lur pribatuen erabilera ezagutzea zailagoa delako.

Barnealdeko dolareen inguruan gehiago ikertzea ere interesgarria litzateke, proposatutako azalpenei oinarri zabalago bat eskaintze aldera.



6. irudia: Gipuzkoako dolaredun baserrietan egindako lan arkeologikoak. Urdinez, Gereñuk aipatutakoak; berdez, *Arkeoikuskak* ere aipatutakoak; zuriz, Santana, Larrañaga, Loinaz eta Zulueta lanean identifikatutako dolareak.

Orokorrean, orain arte egindako lan arkeologikoa interesgarria den arren, osatutako lagina oso txikia da eta lan asko dago egiteke. Badaude euskal baserriaren inguruan egindako hainbat lan (lan arkeologikorik gabeak), zeinetan baserri askotan dolare egiturak identifikatu ahal izan diren, bai jatorrizko posizioan, baita berrerabilpen moduan. Interesgarria litzateke, beraz, lan arkeologikoarekin

jarraitzeko halako lanak aintzat hartzea, baserrien identifikazioa asko erraz dezaketelako.⁵⁴

Ahozko testigantzek ere XVI.mendeko errealitatea ulertzen lagun dezaketela begi-bistakoa dela ere ukaezina da.

⁵⁴ Santana, Larrañaga, Loinaz eta Zulueta lanean, esaterako, 17 dolare egitura identifikatu dira Gipuzkoa osoan. Alberto SANTANA, Juan Ángel LARRAÑAGA, José Luis LOINAZ eta Alberto ZULUETA, *Euskal Herriko baserriaren arkitektura. Baserriak/ La arquitectura del caserío de Euskal Herria. Los caseríos*, Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2002.

8. ERANSKINAK

1. eranskina:

Dolaredun baserrien inguruko ikerketa arkeologikoaren egoera.

Izena	Herria	Noiz	Nork	Finantzazioa	Kronologia	Kosta(K)/ barnealde(B)	Landa(L)/gune urbanoa(G.U.)
⁵⁶ Plaza Berria 20, 28	Azkoitia	2000	Alfredo Moraza Barea eta Jesus Manuel Perez Centeno	Azkoitiako Udala	Ezezaguna	B.	G.U.
⁵⁷ Papinot Kalea 12-14	Hondarribia	2002ko maiatza-2003ko uztaila	Pia Alkain Sorondo	Hondarribiako Udala	XVI. mende ingurukoa (estratigrafia eta dendrokronologia)	K.	G.U.
⁵⁸ Kale Nagusia 7	Segura	2004	M. ^a Antonia Gereñu Urzelai	Eguzki Eraikuntzak eta Gipuzkoako Foru	XVI. mendea	B.	G.U.

⁵⁶ M. GEREÑU, *Opus cit.*, 240-242. orrialdeak; Alfredo MORAZA eta Jesus Manuel PEREZ, “D.3.2.2. Plaza Berri (Azkoitia)”, *Arkeoikuska*, 19. alea, 2000, Eusko Jaurlaritz. Kultura Saila, Vitoria-Gasteiz, 388-391. orrialdeak.

⁵⁷ M. GEREÑU, *Opus cit.*, 242-244. orrialdeak; Maria Mercedes URTEAGA, “D.3.1.8. Panpinot, 12-14 (Hondarribia)”, *Arkeoikuska*, 22. alea, 2003, Eusko Jaurlaritz. Kultura Saila, Vitoria-Gasteiz, 390-392. orrialdeak; Pia ALKAIN, “Excavación arqueológica, Panpinot 12-14, (Hondarribia)” in *Boletín Arkeolan*, 11. alea, 2003, 24-27. orrialdeak.

⁵⁸ M. GEREÑU, *Opus cit.*, 245. orrialdea; Maria Antonia GEREÑU, “D.3.2.18. Nagusia, 7 (Segura)”, *Arkeoikuska*, 23. alea, 2004, Eusko Jaurlaritz. Kultura Saila, Vitoria-Gasteiz, 422-424. orrialdeak.

				Aldundia (GFA)			
⁵⁹ Kale Nagusi 9-9bis	Segura	2006	P. Alkain Sorondo	Ormaizpei S.L., Promociones Arinetxe, GFA	XVI. mendea	B.	G.U.
⁶⁰ Zurbano Kalea 21	Segura	2010	Pia alkain Sorondo	Finantzazioa: Promociones Seguraizko S.L.)	XV.-XVI. mende ingurukoa	B.	G.U.
⁶¹ Jauregi 1 eta Nekolalde 4	Urretxu	2007	M ^a Antonia Gereñu Urzelai	Antzibar S.A. eta GFA	XVI. mendeko bigarren erdia (dendrokronologiaren bitartez).	B.	G.U.
⁶² Igartubeiti	Ezkio-Itsaso	1995	María José Torrecilla, Alberto Santana	GFA	XVI. mendea	B.	L.
⁶³ Bazkardo	Andoian	1990	Iñaki Sagarzazu	GFA	XV. mendeko dorretxea	B.	¿?

⁵⁹ M. GEREÑU, *Opus cit.*, 245. orrialdea; Pia ALKAIN, “D.3.1.4. Kale Nagusia, 9 eta 9 bis (Segura)”, *Arkeoikuska*, 25. alea, 2006, Eusko Jaurlaritz. Kultura Saila, Vitoria-Gasteiz, 470-472. orrialdeak.

⁶⁰ M. GEREÑU, *Opus cit.*, 246. orrialdea; Pia ALKAIN, “C.25.1.1. Zurbano, 21”, *Arkeoikuska*, 29. alea, 2010, Eusko Jaurlaritz. Kultura Saila, Vitoria-Gasteiz, 391-393. orrialdeak.

⁶¹ M. GEREÑU, *Opus cit.*, 246-247. orrialdea; Maria Antonia GEREÑU, “C.26.1.1. Jauregi, 1 eta Nekolalde, 4”, *Arkeoikuska*, 26. alea, 2007, Eusko Jaurlaritz. Kultura Saila, Vitoria-Gasteiz, 391. orrialdea.

⁶² M. GEREÑU, *Opus cit.*, 247-249. orrialdea; María José TORRECILLA eta Alberto SANTANA, “B.3.1.4. Igartubeiti baserria (Ezkio-Itsaso)”, *Arkeoikuska*, 14. alea, 1995, Eusko Jaurlaritz. Kultura Saila, Vitoria-Gasteiz, 460-468. orrialdeak.

⁶³ M. GEREÑU, *Opus cit.*, 248. orrialdea; Iñaki SAGARZAZU, “B.3.5.7. Proyecto de documentación del Caserío Bazkardo (Andoain)”, *Arkeoikuska*, 9. alea, 1990, Eusko Jaurlaritz. Kultura Saila, Vitoria-Gasteiz, 184. orrialdea.

			Andueza (Arkeolan)				
⁶⁴ Dolarea Eraikina	Beasain	2007	Arantxa Agirre Urteaga	Beasaingo Udala, GFA	XVI.-XVII. mendeak	B.	G.U.
⁶⁵ Tolare Baserria	Ibaeta- Donostia	2009	Javier Buces Cabello	Donostiako Udala	XVI. mendea	K.	¿?
⁶⁶ Berroeta	Ormaiztegi	2000	Iñaki Sagarzazu Andueza	¿?	XVI. mendearen bigarren erdia	B.	L.
⁶⁷ Ondartza	Bergara	2002ko urria	Miren Ayerbe Irizar	HAGINPE	XVI. mendea	B.	G.U.
⁶⁸ Aizpurua	Zubieta- Donostia	2007	Jesus Manuel Perez Centeno	Iñigo Aizpurua Zaldua	XVI. mendea?	K.	G.U.
⁶⁹ Boulevard- a	Donostia	2003	Iñaki Sagarzazu Andueza	¿?	XVI.-XVII. mendeak	K.	G.U.

⁶⁴ M. GEREÑU, *Opus cit.*, 249. orrialdea; Arantxa AGIRRE, “C.5.1. Igartzako multzoa. Dolarea eraikina”, *Arkeoikuska*, 26. alea, 2007, Eusko Jaurlaritza. Kultura Saila, Vitoria-Gasteiz, 331-333. orrialdeak.

⁶⁵ M. GEREÑU, *Opus cit.*, 249-250. orrialdea; Javier BUCES, “C.12.2.1. Tolare baserria”, *Arkeoikuska*, 28. alea, 2009, Eusko Jaurlaritza. Kultura Saila, Vitoria-Gasteiz, 353-356. orrialdeak.

⁶⁶ M. GEREÑU, *Opus cit.*, 251. orrialdea.

⁶⁷ M. GEREÑU, *Opus cit.*, 251. orrialdea; Miren AYERBE, “D.3.2.4. Ondartza Baserri-Jauregia (Bergara)”, *Arkeoikuska*, 21. alea, 2002, Eusko Jaurlaritza. Kultura Saila, Vitoria-Gasteiz, 500-501. orrialdeak.

⁶⁸ M. GEREÑU, *Opus cit.*, 251. orrialdea; Jesus Manuel PEREZ, “C.10.2.1. Aizpurua etxea (Zubieta)”, *Arkeoikuska*, 26. alea, 2007, Eusko Jaurlaritza. Kultura Saila, Vitoria-Gasteiz, 344. orrialdea.

⁶⁹ M. GEREÑU, *Opus cit.*, 251-252. orrialdeak.

⁷⁰ Unanue Zahar	Añorga-Donostia	2003	Alesander Maguregi	Pribatua	XVI. mende hasiera	K.	¿?
⁷¹ Iribar	Igara-Donostia	2002	M. ^a Mercedes Urteaga	Peñagarikano Etxegileak S.L	XVI. mendea	K.	¿?
⁷² Erretzabal	Orio	2003	Alex Ibañez Etxeberria eta Nerea Sarasola Etxegoien	Maria Eugenia Idarreta	XVI. mende erdialdea	K.	L.
⁷³ Aitzeterdi Baserria	Alkiza	1996	M. ^a José Torrecilla Gorbea, Alberto Santana Ezquerria.	GFA	1530-1540	B	L.
⁷⁴ Etxenagusia Baserria	Eldua-Berastegi	1997	Juantxo Agirre Mauleon, Alex	Patxi Iriarte eta GFA	XVI.mende erdialdea. (Dendrokronologiaren	B.	L.

⁷⁰ *Ibidem*, 254-255. orrialdeak; Maria Antonia GERENÛ, “D.3.1.6. Unanue Zahar baserria (Donostia-San Sebastian), *Arkeoikuska*, 22. alea, 2003, Eusko Jaurlaritz. Kultura Saila, Vitoria-Gasteiz, 380-386. orrialdeak.

⁷¹ Marian GERENÛ, *Opus cit.*, 255. orrialdea; Maria Mercedes URTEAGA, “D.3.2.5. Iribar Baserria (Donostia-San Sebastián)”, *Arkeoikuska*, 21. alea, 2002, Eusko Jaurlaritz. Kultura Saila, Vitoria-Gasteiz, 501. orrialdea.

⁷² Marian GERENÛ, *Opus cit.*, 255-256. orrialdeak; Alex IBÁÑEZ eta Nerea SARASOLA, “D.3.2.16. Erretzabal baserria (Orio)”, *Arkeoikuska*, 22. alea, 2003, Eusko Jaurlaritz. Kultura Saila, Vitoria-Gasteiz, 431-432. orrialdeak.

⁷³ Maria José TORRECILLA eta Alberto SANTANA, “B.3.2.1. Aitzeterdi Baserria (Alkiza)”, *Arkeoikuska*, 15. alea, 1996, Eusko Jaurlaritz. Kultura Saila, Vitoria-Gasteiz, 289-291. orrialdeak.

⁷⁴ Juantxo AGIRRE-MAULEON eta Alex IBÁÑEZ, “D.3.3.1. Etxenagusia Baserria (Eldua, Berastegi)”, *Arkeoikuska*, 16. alea, 1997, Eusko Jaurlaritz. Kultura Saila, Vitoria-Gasteiz, 347-350. orrialdeak.

			Ibañez Etxeberria		arabera egurra 1545 eta 1551 artean moztua izan zen)		
⁷⁵ Orbea Baserria	Eibar	1997	José Luis Ibarra Álvarez.	ESPRILUR	XVI. mendea	B.	L.
⁷⁶ Irrarazabal Orubea	Deba	1998	Miren Ayerbe Irizar	Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio eta Errepide Saila	1482reko dorretxea zegoen. Dolarearen kronologia ezezaguna.	K.	L.
⁷⁷ Etxeberri	Gaztelu	1996	Alex Ibañez Etxeberria eta Juantxo Agirre- Mauleon	GFA eta Juan Inazio Hartsuaga	XVI. mende amaiera	B.	¿?
⁷⁸ Justizia Jauregia, Ariznoa Plaza	Bergara	2004	. M. ^a Antonia Gereñu Urzelai	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. Eusko Jaurlaritza	XV.-XVI. mendeak?	B.	G.U.

⁷⁵ GFA, “D.3.2.4. Orbea Baserria (Eibar)”, *Arkeoikuska*, 16. alea, 1997, Eusko Jaurlaritza. Kultura Saila, Vitoria-Gasteiz, 320. orrialdea

⁷⁶ Sagrario ARRIZABALAGA eta Miren AYERBE, “D.3.2.4. Irrarazabal orubea (Deba)”, *Arkeoikuska*, 17. alea, 1998, Eusko Jaurlaritza. Kultura Saila, Vitoria-Gasteiz, 430-434. orrialdeak.

⁷⁷ Alex IBÁÑEZ eta Juantxo AGIRRE-MAULEON, *Opus cit.*, 67-83. orrialdeak.

⁷⁸ Maria Antonia GEREÑU, “D.3.1.2. Justizia Jauregia. Ariznoa Plaza (Bergara)”, *Arkeoikuska*, 23. alea, 2004, Eusko Jaurlaritza. Kultura Saila, Vitoria-Gasteiz, 386-389. orrialdeak.

⁷⁹ Oianguren Baserria	Irun	2004	Miren Ayerbe	Auzolan Arretzeko A.I.U. 1.30.4 Jarduera Unitateko Konpentsaziorako Batzordea	XVI. mendea	B.	G.U.
⁸⁰ Eduegi Baserria	Bergara	2011	Alicia Ismodes Ezkurra	Abergara ABEE	XVI. mendea	B.	G.U.
⁸¹ Arane Baserria	Tolosa	2011	Ander Arrese	Tolosa-Hernalde ABEE	XVI. mendea?	B	L.
⁸² Barrenkale 15 orubearen atzealdea	Bergara	2012	Iosu Etkezarraga	Partikularra	XVI. mende hasiera (edo lehenago)	B.	G.U.

⁷⁹ Miren AYERBE, “D.3.2.13. Oianguren baserria (Irun)”, *Arkeoikuska*, 23. alea, 2004, Eusko Jaurlaritz. Kultura Saila, Vitoria-Gasteiz, 415-418. orrialdeak.

⁸⁰ Alicia ÍSMODES eta Víctor CANTALAPIEDRA, “C.8.2.2. Eduegi baserria”, *Arkeoikuska*, 30. alea, 2011, Eusko Jaurlaritz. Kultura Saila, Vitoria-Gasteiz, 334. orrialdea.

⁸¹ Ander ARRESE eta Xabier PADIN, “C.29.1. Arane baserria (Esteban auzoa)”, *Arkeoikuska*, 30. alea, 2011, Eusko Jaurlaritz. Kultura Saila, Vitoria-Gasteiz, 401-404. orrialdeak.

⁸² Iosu ETXEZARRAGA, “C.7.1.2. Barrenkale, 15 orubearen atzealdea”, *Arkeoikuska*, 30. alea, 2011, Eusko Jaurlaritz. Kultura Saila, Vitoria-Gasteiz, 267-269. orrialdeak.

2. eranskina:

Título XIX. Del trato, comercio y navegación⁸³

Ley 2.^a: Para que en el trigo, cebada, mijo ni otro ningún mantenimiento que viniere a esta provincia, no pueda haber represaría ni carta de marca.

Otrosí, dijeron que esta provincia y los caballeros hijos dalgo vecinos y moradores de ella tenían privilegios y mercedes de los Reyes de gloriosa memoria para que con las personas que con sus naos o bestias o de otra manera trajeren de fuera de estos reinos pan, trigo, cebada, centeno, avena, mijo, vino, carne, tocino, carneros, ovejas, cabrones, vacas, bueyes, pasa, higos, sal, aceite, salmones, pescado cecial y atunes y cáñamo para mantenimiento de esta provincia así por mar como por tierra, no puedan ser tomados a la venida, estada ni vueltas las personas, naos ni bestias en virtud de ninguna carta de marca o represaría por ninguna vía ni manera ni por ninguna cauda ni razón que sea.

3. eranskina:

Título XXI. De las sidras.⁸⁴

Cap. II. Que no de consienta traer á esta Provincia, y vender en ninguna parte de ella, Sidra alguna, que no fuere de la cosecha de la mesma Provincia.

Por quanto siendo el principal sustento, y grangeria de los naturales, vecinos, y moradores de las Villas, Alcaldias, y Lugares de la Provincia, el aprovechamiento de las Sidras de la cosecha de sus heredades, y manzanales, se van deshaciêdo, y acavando, por no las poder beneficiar, y cultivar sus dueños, como para su còservacion convenia á causa de faltarles el aprovechamiêto de la cosecha de las dichas sus heredades, por còsêtir, que se traigâ las Sidras de la cosecha del Reyno de Frâcia, y de otras partes fuera del cuerpo de esta Provincia, de suerte que de las de su propia cosecha se pierden, y derraman en abundâcia, de que en esta Provincia resulta mucho daño cuyo remedio es de tanta consideracion, que de no lo procurar, se espera la total destruicion, y acavamiento de la mayor parte de las heredades, y manzanales de esta Procincia, para remedio de ello. Ordenamos, y mandamos, que de aqui adelante, ahora, ni en ningun tiempo, ningunas personas, assi naturales, y vezinos de esta Provincia, como de fuera de ella traigan, ni puedan traer al cuerpo de ella, ni á sus puertos, por mar, ni por tierra, ninguna cantidad de sidras de la cosecha del Reyno de Francia, ni de otra ninguna parte fuera de esta Provincia, para que en ninguna de sus Villas, y Lugares, se envasen, vendan, ni consuman, ni para la

⁸³ S. INSAUSTI (edit.), *Opus cit*, Fol. 108 r., Fol. 109 v.

⁸⁴ *Fuero de Guipúzcoa...*, 269-270. orrialdeak; *Nuevo Recopilación de los fueros...*, 269-270. orrialdeak.

navegacion de Terranova, ni otra ninguna, ni alguna persona las compre, hasta tanto, que las de la cosecha del cuerpo de esta Provincia se gasten, y consuman en juntos, y modereados precios, so pena que qualquier persona, que las tragare, ó onvasare, ó vendiere, ó comprare, las aya por perdidas, la tercia parte para la Camara de Su Magestad, y la otra tercia parte para los reparos de esta Provincia, y la otra tercia parte para el juez, que lo sentenciare: mas queremos, y consentimos, que ahora, y en todo tiempo, puedan comprar las dichas sidras de la cosecha de esta Provincia, todas y qualesquier personas naturales, y estrangeros, libremente en qualesquier Villas, y Lugares de esta Provincia, en la cantidad, que quisieren, y por bien tovieren, y que las puedan llevar, y consumir donde quisieren, y por bien tovieren.

4. eranskina:

Título XXI. De las sidras⁸⁵

Ley 1.^a: Que las sidras que en esta provincia se han de vender, no se las pueda echar agua ninguna.

Primeramente, por ser uno de los principales mantenimientos de esta provincia la sidra, por usar y beber de ella casi toda la gente en especial las mujeres y gente pobre e jornaleros e porque, con ser de poca sustancia, algunas personas movidas de avaricia en gran cargo de sus conciencias echaban agua en ella y la vendían dando a entender ser pura y sin mixtura de agua de que venía gran daño en especial a la gente pobre y trabajadores, por obviar a lo cual dijeron que ordenaba y mandaban y establecían por la ley que ninguna persona de esta provincia de Guipúzcoa de ningún género y estado, calidad y condición que sea, ahora ni en tiempo alguno de aquí adelante para siempre jamás sea osado de echas ni eche agua ninguna en ninguna cantidad a la sidra que hiciere para efecto de la vender, sino tan solamente a la que hicieren para provisión de su propia casa, criados y familia, so pena de seis mil maravedís y de perdimiento de la sidra que se hallare que vende siendo aguada, aplicados la tercia parte para la Cámara de Su Majestad y la otra tercio parte para el denunciador y la otra tercia parte para el juez que lo sentenciare, y que los alcaldes de las villas de esta provincia cada uno en su jurisdicción lo hagan así guardar y cumplir y llevar a debida ejecución y efecto, so pena de veinte ducados al alcalde que fuere remiso en ello aplicados por tercios como de suso.

⁸⁵ S. INSAUSTI (edit.), Opus cit., Fol. 112 v.-Fol. 113 vg.

5. eranskina:

Título XXII. De las cosas prohibidas a sacar de esta provincia de Guipúzcoa. ⁸⁶

Ley 1.^a: Que los que trajeren trigo a esta provincia, no lo lleven por mar ni por tierra a reino extraño, especialmente a tierra de Labort.

Primeramente, porque esta provincia de Guipúzcoa por su esterilidad y aspereza es poco cultivada y a la causa muy poco el trigo que se coge y tiene necesidad de ser proveida de otras partes y de guardar para sus vecinos y moradores lo que viene; conforma la ordenanza confirmada, usada y guardada que sobre ello tenían, dijeron que ordenaban y mandaban y establecían por ley que de aquí adelante ni en ningún tiempo alguno ni ninguno de esta provincia ni de fuera de ella que a ella llevare trigo, no sea osado de llevar por tierra ni por mar alguno a ningún reino extraño especialmente a tierra de Labort, so pena de lo perder al que así llevare y consintiere llevarlo y que hayan para sí el tal trigo aquellos que le hubieren tomado, por lo que dicho es, y a más de ello incurran en las otras penas por leyes de estos reinos establecidas.

6. eranskina:

Debako 1394, 1412 eta 1422ko ordenantzak. ⁸⁷

Hordenança 38.- / Otrossí, hordenaron que si alguno o algunos vezinos / o estranos troxeren sidrass de fuera parte que non / sea de la vezindad o del terrenario d'esta villa, e vien / essomesmo mançanas para hazer sidra o lo enba/ssare para vender o para beber, que pague por cada / un barril de sidra (...) maravedís para la çerca de la villa / por entrada e por cada dindo de mançana. E / mientras durare(n) las sidras de la villa, que las taless / sidras que fueren traydas de fuera, que non se ven/dan en la villa ni a la mar, e si las quisieren vender / o vendieren en qualquier manera, que pague por ca/da varril de sidra dos maravedís, demás del de la entra/da. (...). /

⁸⁶ *Ibidem.*, Fol. 113 v. Fol. 114 r.

⁸⁷ A.M. Zestona.- *Sección: Administración Municipal. Negociado: Ordenanzas y Reglamentos. Libro 2. Expediente 1.* Maria Rosa AYERBE eta Javier ELORZA, *Archivo Municipal de Zestoa (1338-1520)*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 2008, 43-56. orrialdeak.

7. eranskina:

Martin de Azurmendi eta Maria de Epola zumaiarrek Juan del Basabe errezilgo maestreari egindako sagardo salmentaren ziurtagiria, 1520ko uztailaren 20an, Zumaian.⁸⁸

